Hitzaurrea

Eskuartean duzun lan-bilduma honek hainbat egitasmo biltzen ditu. Nagusiki, ikerketa-proiektu baten fruituak jasotzen ditu. Euskaraz ahozko testu edo ekoizpen formalak edo landuak nolako egitura eta moldeak, ñabardurak, eta baliabide diskurtsibo eta pragmatikoak dituen aztertzeko, ikerketa zabal bat abiatu zen 1998an (HU-128-1998). Ikerketa horren lehen pausoa hainbat motatako testu-generoen corpusa osatzea izan da: ipuin-kontaketak, debateak, elkarrizketak, hitzaldiak,… Corpusa biltzea, grabatzea eta behar bezala transkribatzea lan astuna izan da, baina lan zailagoa izan da, dudarik gabe, eta interesgarriagoa ere bai, beharbada, corpus horren azterketa. Egitasmo hau Euskararen Jabekuntza eta Erabilera (EJE) (www.ehu.es/eje) ikertaldearen ikerlerro nagusietako bat bihurtu da, eta horren orain arteko emaitza adierazgarrienak bilduma modura aurkezten ditugu liburu honetan.

Nolanahi ere, liburu honetan aurkezten diren lan gehienak, edo haien bertsioak, aurrez aurkeztu eta eztabaidatu izan dira mintegi eta kongresuetan; batzuk, erdaraz, gaztelaniaz, ingelesez nahiz frantsesez, argitaratu ere egin dira, hemen eta han, bibliografian ikus daitekeen modura. Euskaraz eta idatziz, ordea, ez dira hemen agertzen diren lanak bere horretan inoiz argitaratu.

Euskarazko genero formalak aztertzeko egitasmoak, helburu linguistikoaz gainera, hasiera-hasieratik izan du helburu didaktikoa ere. Uste izan dugu, eta horretan gaude orain ere, ahozkoa erakutsiko bada –eskolan esan nahi da–, ezagutu egin behar dela, eta modurik zehatzenean gainera, zer-nolakoa den erakutsi nahi den mintza-modu hori. Hizkuntza zer den eta nola funtzionatzen duen, denok dugu horri buruzko iritzia, baina azterketa zehatzak (zientifikoak?) ez ditu beti uste horiek baieztatzen; alegia, uste dugunetik egiatan gauzak diren modura tarte handia egon ohi da. Ahozkoaz, hizkuntzaren kalitateaz bezalatsu (Idiazabal & Larringan, 2005b), erraz egiten dira balorazioak: joria, gatz eta piperduna, dotorea, kalitatezkoa, egokia, edo alderantziz, eskasa, traketsa, euskara mordoiloa, estilorik gabea, ez gatzik ez piperrik ez duena, ezin irentsia,… Gutxitan azaltzen dira, ordea, modu objektiboan eta intuizioarena baino oinarri sendoagoz, eta gauza bera gertatzen da ahozkoaren irakaskuntzarekin ere. Eta jakina, honetan, euskaraz baino argiago, aztertuago, ikusi ditugu gauzak beste hizkuntza

batzuetan. Ingelesez edo frantsesez, esate baterako, oso lan ugariak daude hizkuntza horien ahozko formak zehatz aztertzen dituztenak. Guk ere bide horretatik ibili nahi izan dugu.

Eta ikaste-prozesuari buruz, ekinaren ekinak irakasten duela badakigu, jakina; baina gaurko irakaskuntza, arlo guztietan, zerbait aurreratu bada, ikasten denaren eta ikaste-prozesuaren ezagutzan aurrerapen sakonak egin direlako aurreratu da. Berez eta norbanakoaren gaitasunak "loratzen" utzi edo hartarako aukerak eskaini baino zerbait gehiago egin behar dela, alegia, gaurko jakite-eskakizunei aurre egin nahi bazaie.

Helburu didaktikoa, beraz, liburu honetako ia lan guztiei darie. Lan batzuk, nolanahi ere, bereziki didaktikoak dira, eta horien artean, frantsesetik itzuli ditugunak lirateke lekukorik garbienak.

Lan gehienetan, bestalde, hizkuntzaren ikusmolde nolabait esateko sozio-diskurtsiboa ageri da. Hizkuntzaren formak, moldeak, erabileraren (erabilera sozialaren), nahi bada, egoera komunikatiboaren baitan eraiki diren testu-generoen edo testuen arabera gauzatu dira; direla ipuinak edo ipuin-kontaketak, direla asmakizunak, direla hedabideetako elkarrizketak, debateak edo era askotako hitzaldiak, eta zeresanik ez, poemak, bertsoak edo kanta zaharrak. Hemen, Bakhtine (1984) gogoratu behar, bilduma honetako hainbat lanetan egiten den bezala; alegia, hitz egiten ikastea mintzamoldeak ikastea da, ez lehenengo hitz solteak, gero esaldi laburrak, gero luzeagoak eta gero testuak ikastea, baizik eta bere baitan zentzua duten eta haurra edo heldua bizi den inguru sozialean zentzua eta nolabaiteko moldea garatu duten hitz-egintzak menderatzea; hori da hitz egiten ikastea. Igerabideren lana ere, azken batean, horrela ulertu behar da: hizkuntza sentipenez edo sentimenduarekin erabiltzen ikasteko molde poetikoak proposatzea, baliabideak ematea da, azken batean, moldeak erakustea.

Bi ataletan banatu dugu bilduma: lehenengoan, euskararen ahozko zenbait generoren azterketak datoz. Aipatu dugunez, ikerketa-proiektu baten emaitzak dira atal horretako lan guztiak, Hidalgorena salbu.

Idiazabal eta Larringanen lana ,"Berbaldi-periodoa: debate-jardunaren deskripziorako eta didaktikarako tresna", Luzzatik (1985) frantsesarentzat proposatu zuen periodo-

nozioan oinarrituta gauzatu zen, euskarazko debateak aztertzeko eta haren irakaskuntzarako baliabide gisa. Lan horren lehen bertsioa frantsesez aurkeztu eta argitaratu zen (Idiazabal & Larringan, 2005a). Nolanahi ere, hemen aurkezten dugun bertsioa berregina eta osatuagoa da, euskarazko corpusaren adibide gehiagoz eta azterketarako moldaketa berriez hornitua. Lanean bertan ez da proposamen didaktikorik ageri, baina izenburuan eta gure intentzioetan garbi legoke irakaskuntzarako lan horren baliagarritasuna. Ahozko debatean parte hartuz irakasteko hemen proposatzen den periodo-unitatea eta haren hiru atalen egitura oso erabilgarria iruditzen zaigu. Arrazoi asko daude horretarako: edukia eta forma biltzen ditu; idatzizkoan (eta gramatikan?) oharkabe uzten diren elementu fatikoei dagokien lekua ematen die; egituraren hiru atalak (topikoa edo tentsioa, baldintza eta irtenbidea) oso esanguratsuak dira, laguntzen baitute ikasleen hitz-hartzeak ebaluatzen; adibidez, baldintzaren atala, non kausak, arrazoiak, justifikazioak, argudioen garapena oro har biltzen baita, trebatu gabeengan oso urri izaten dela ikusi da beste ikerketa batzuetan ere. (ikus Garro eta beste, bilduma honetan bertan).

Garro, Idiazabal eta Larringanen lana, “Gaia eraikitzeko baliabide diskurtsiboak gaztetxoen debateetan”, testu-genero honetako corpusaren azterketan eta haren irakaskuntzan garrantzitsuzkoenetakoa iruditzen zaigun kontua aztertzen da: gaiaren eraikuntza eta kudeaketa. Elkarreraginean landu eta garatu behar da gaiaren ezagutza, eta baita elkarren arteko akordio edo ondorioetan aurrera egitea ere, hala behar izanez gero. Hizketa-gaia modu eraginkorrean kudeatzeko ez da aski hizketa-gaiaz zer esana izatea. Gai horretan jantzia izateak ez du beti ziurtatzen debate batean ezagutzak aurrera egingo duenik. Lan honetan ikusten da bost baliabide nagusietatik bat edo bi bakarrik erabiltzen dituztela gaztetxo ez-trebatuek. Alegia, gai edo azpigai berriak ekartzeko gaitasun gutxi ageri da; debatearen gidariak ekarri duen gaiari eustea da nabarmen ikusten den trebetasuna; gaiari eutsi bai, nolabait, baina ez aldaketarik, ez argitze, ez desbideratzerik, eta are gutxiago gaiaren aldatzerik. Lan honetan debateetako gaia kudeatzeko proposatzen diren bost baliabideak oso aproposak dira didaktikan ere kontuan hartzeko. Eskoletan debateak egiten direnean eztabaida-gaia jarri eta elkarren artean solasean jartzeko bitartekoak eta euskarriak ematen ez badira, ez da debatea bere osotasunean aprobetxatuko ez hizkuntza baliabideen aldetik, ez eta giza ezagutzaren eta jakintza-ezagutzaren aldetik ere.

Diaz de Gereñu, Idiazabal eta Larringanen lana, “Ipuin-kontalaritzaren eredu berria?”, zenbait ipuin-kontalari adituren saioak bildu eta aztertu ostean egindako proposamena da. Testu-molde edo testu-genero bezala aurkezten den eredu horri *berria* deitzen zaio, orain arte ezagutzen genuen ipuinaren eredua edo egitura erabat idatzizko ipuinaren araberakoa baita. Kontaketa-saioetan agertzen diren ñabardurak ezagutzeak, ekarpen linguistikoez gainera, irakaskuntzarako ere hainbat bide irekitzen dizkigu. Ipuin-kontaketak ohiko eginkizunak dira eskolan, profesionalen mailan ezin bada ere, eta gutxienez zer ez egin jakiteko ezinbesteko balioa du Diaz de Gereñuren lanak.

Eider Larrazabal eta Luis Mari Larringani zor diegu “Irrati-elkarrizketa: ahozko genero formal baten analisia” lana. Beste genero bat dugu, elkarrizketa, eta, irrati bidez egindakoa den heinean, formala. Lan horrek ere, bere oinarrian, irrati bidez egindako hainbat elkarrizketaren transkripzioa eta analisia ditu eta artikulu honetara generoak bereak dituen hainbat ezaugarri eta horien adibideak ekartzen dira. Interlokuzioa, interakzioa, hurren bikotea, hitz-txanda, sekuentzia, mugimendua, interbentzioa, elkartrukea lanaren gako-hitzak dira, eta bertan egiten den kontzeptu horien zedarritze-lana guztiz aproposa iruditzen zaigu ahozkoaren pragmatikan garatu diren kontzeptu oinarrizkoak direlako eta euskaraz horien erabilera oso gutxi garatua dagoelako.

Luis Mari Larringanen “Ahozko hizkuntza ulertzeko hiru gogoeta” lanean ahozko hizkuntzaren hiru ezaugarri nabarmen baina gure artean baztertuta egon direnak edo behintzat oso gutxi aztertu izan direnak kontuan hartzen eta lantzen dira: errepikapenak eta erredundantziak, hizkuntza idatzian “lorrintzat edo usteltzat” jotzen diren baina hizkuntza mintzatuan sarri asko gertatzen diren “eraikuntza edo erabilera gaiztoak”, eta, azkenik, hanka-sartze eta erroreak. Gogoeta moduan aurkezten diren arren, oinarri sendo eta enpirikoak ditu lanak, eta beste hizkuntza batzuetan ohikoak diren azterketak euskaraz ere egiteko beharrari erantzuten dio.

Bittor Hidalgok “Esaldiaren informazio-egituraren isla, prosodian” lana aurkezten digu. Ahozkoaren beste era bateko azterketa dugu. Dialektologiaren esparruan, alde batetik, eta, bestetik, esaldiaren gramatikaren mugen barruan kokatzen dena. Nolanahi ere testu errealetako esaldiak dira, ez laborategitik ateratako esaldi asmatuak edo irakurriak. Argigarria eta zehatza, gure artean nahikoa urria den prosodiaren ikerketa-eremuan, eta hizkuntzaren azterketarako ekarpenez betea.

Bigarren atalean, hizkuntzaren didaktikarekin lotura estua duten lanak bildu ditugu, batzuk itzuliak eta besteak gure artean sortuak. Lehenengo, **Bernard Schneuwly** Genevako Unibertsitateko katedradunaren lana aurkituko dugu: "Jendaurreko hizketaren irakaskuntza: hurbiltze sozio-historikoa". Schneuwly, Bronckarten aspaldiko lankidea; haren oinarri epistemologiko berberak –hizkuntzaren eredu sozio-interaktiboa eta historikoa– garatu ditu, eta arreta berezia eskaini dio hizkuntzaren irakaskuntzari. Ikus bere lan ugariak. Hemen, Vygotskiren teorian oinarrituta, hizketaren didaktikaren erronka zein den erakusteko saiakera bat aurkezten digu, eta bide batez, haren irakaskuntzarako, *ahozkoa* terminoaren ordez *hizketa* erabiltzea proposatzen du. Didaktika horren erronka norberaren hizketarekin bestelako harremana izatea ekarriko duen sistema psikiko berria eraikitzea da; sistema hori ezinbestekoa da jendaurreko hizketa –eskolako irakaskuntzaren benetako helburua– menderatu nahi izatekotan.

Iakoubinskiren teoria zein Vygotskik hartaz egindako irakurketa berrikusi eta jendaurreko hizketak mintzajardun gisa dituen lau dimentsio deskribatuko dira lan honetan: hizketaren fikziozkotzea, hizketaren monologizatzea eta barne-kontrola, aurreikuspena eta memoria, baliabide mnemoteknikoen eta ahotsaren zein gorputzaren erabilera kontzientearen laguntzarekin.

Schneuwlyren eskola berekoak dira **Jean-François De Pietro eta Joaquim Dolz** ere. Haien lana "Ahozkoa, testu gisa: nola eraiki objektu irakasgarria?" da, Genevako hizkuntzen didaktikako taldearen erakusgarri argia, hau ere bai. Hemen proposamen nahiko praktikoak ikus ditzakegu ahozko hizkuntza-eskolan lantzeko, betiere, Genevan ohikoa den generoen araberako ikusmoldea eta sekuentzia didaktikoa deritzan irakas-unitate ezagunaren haritik. Didaktika esperimentalaren hainbat urtetako ikerketak zeinen ondorio mamituak ekar ditzakeen ikus daiteke lan honetan, eta baliabide interesgarria iruditzen zaigu euskararen nahiz beste edozein hizkuntzaren ahozkoa eskolan lantzeko. Egia esan, ezinbestekoa iruditu zaigu Schneuwly, Dolz eta DePietroren lanak gure bildumara ekartzea, haien lanak (eta Bronckartenak ere bai, jakina) izan direlako gure artean egiten diren edo egin nahi diren hizkuntzen didaktikaren eremuko lan askotan oinarrizko erreferentzia. Bilduma honetako bibliografian argi ikusten da ekarpen hori.

Ines Garcia Azkoagarena da hurrengo lana: “Ahozko azalpena unibertsitatean: ezagutzak ebaluatzeko tresna bat baino gehiago”. Ahozko azalpena, eskolan eta unibertsitatean, ahozkoaren erakusgarri nagusia da; baina, jakina, gehienetan irakaslearen ahotikoa izan ohi da. Gaur irakaskuntzaren maila guztietan azpimarratzen da ikasleek ikasgeletan izan behar duten presentzia erreala, haien hizketa-gaitasunek izan behar duten garapena, mintzagaitasuna, irakaskuntzan nahitaez elkarreraginez landu behar den hizkuntzaren eta jakintza ororen garapenerako bitartekoa dena. Nola lortu, nola erakutsi, ordea? Ines Garciak ahozko azalpen eta hitzaldi asko aztertu ditu generoaren ezaugarriak ezagutzeko, eta urte askotako esperientzia ere badu unibertsitatean euskararen irakaskuntzan. Maila horietan ahozko jarduera horiek irakatsi daitezkeela erakutsi nahi izan du ikasleekin zenbait urtean egin dituen praktiken bitartez. Esperientzia eta gogoeta horien emaitza da hemen aurkezten digun proposamena.

Leire Beloki eta Ibon Manterolak ekartzen diguten lana, “Ahozko ipuin-kontaketa, Haur Hezkuntzan: ikerketa esperimentaletik didaktikara”, EJE taldearen beste ikerlerro baten emaitza da (BFF2003-05196). Etxetik euskaldunak eta gaztelaniadunak diren Haur Hezkuntzako azken urteko bi ikasle talderen ahozko hizkuntza-gaitasunak aztertzeko sortu den ikerketa esperimentalaren berri eman nahi da lan honetan. Ahozko ipuin-kontaketak, bai H1 euskara dutenekin, bai H1 gaztelania dutenekin, ahozko hizkuntza lantzeko balio dezaketen alderdiak dituela erakusten da. Aurrez entzundako ipuin bat modu autonomoan eta marrazkien laguntzarekin haurrei ahoz kontaraztea da ikasleei eskatzen zaiena, eta horretarako, zentzu komunikatiboa duen interakzio-egoeran murgiltzen dira ikasleak. Ikerketaren zehar-emaitzak eskaintzen dira lan honetan[1], ipuinaren didaktikatik jasotako gogoetak: haurrei ipuina kontarazteko egoera komunikatibo egokiak prestatzen badira, eta ipuinetako baliabide ugariak ongi ezagutu, hainbat posibilitate eskaintzen ditu hizkuntza ahoz lantzeko.

“Haurra eta ahozkotasuna” du izena **Juan Kruz Igerabidek** dakarkigun lanak, eta honela esaten digu: “Hizketan baino zerbait gehiago ikasi behar du haurrak; egoera komunikatibo bati egoki erantzuten baino zerbait gehiago; ingurunea deskribatzen baino zerbait gehiago. Eta, batez ere, horien guztien aurretik, hasiera-hasieratik. Lehen-

[1] Ikus Beloki, Idiazabal & Manterola (2005) bestelako lehen emaitzak ezagutzeko.

lehenik eman beharreko pausoa gorputz eta arimaz mintzatzen ikastea dela iruditzen zait; eta, horretarako, sentitzen denari hitzak jartzen ikasi behar da". Eta arrazoia dauka. Izan ere, mintzatzen ikastea ez da gauzak buruz ikasi eta errepikatzea, besterik gabe, baizik eta gauzak (esan nahi dena, azaldu nahi dena, kontatu nahi dena, sentitzen dena ere bai) nola esaten diren ikastea. Askotan, ikasitako moldeak errepikatzea ere ekarpena izango da haurrarentzat eta edozein hiztunentzat. Eta Igerabidek horretarako proposatzen dizkigun hitz-jokoak, igarkizunak eta poema ederrak eredugarriak dira, dudarik gabe. Haiek entzun, ulertu, buruz ikasi eta haiekin jolastea mintza-esperientzia aberatsa eta bailagarria da. Horretan ez dago zalantzarik. Eskolan edo etxean, zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto. Baina hori bateragarria da didaktikaren proposamen nagusiekin: egoera komunikatibo zentzudunetan mintzatzen edo idazten (eta ulertzen eta irakurtzen) erakustea, eta hartarako behar diren ereduak, testu-molde aproposak ikasarazteak, ez du oztopatzen sentituz hitz egitea, sentimenei hitzak jartzen ikastea. Jendaurrean azalpen txukun bat egiten duen ikasleak ere sentitzen duena esaten du, eta zenbat eta baliabide gehiago, orduan eta gusturago geratuko da esaten duenarekin. Egia da, batzuetan, hizkuntza lehorregia bihurtu daitekeela, baina gakoa gauzak esateko askotariko moduak ikastean datza, bakoitzari berea. Ala ez? Azken batean, poesia egitea, oro har, literatura egitea edo hizkuntza era ludikoan erabiltzea, hori ere komunikazio-egoera batean jardutea da. Gogoetarako, eta nahi bada eztabaidarako, ekarpen interesgarria, Juan Kruz Igerabidek aurkezten digun lana.

Azkena ipini dugun lana **Marielle Rispailena** da: "Ahozkoaren meta-mintzaira baterantz: zer diote ikasleek?". Azkena jartzeak ez du esan nahi, halere, garrantzi gutxiago duenik. Oso dira jakingarriak bertan agertzen diren gogoetak. Irakasleek ahalegin handiak egin ditzakete, baina ikasleen aurreiritziak, usteak, irudikapenak ezagutzen ez badituzte, alferreko edo lortu nahi denaren aurkako lana ere egin dezakete. Ikasleentzat ahozkoa objektu irakasgarria ote den jakin nahi da lan honetan. Ikasleek ahozkoaz duten iritziari behatuz, bi urtean zehar hainbat ikaslerekin egindako elkartrukeen bidez, ahozkoaz duten irudikapena aztertzen da. Hizketari buruz diharduten elkartruke horiek ikasleen bizitzaren, aisiaren nahiz eskolaren gainekoak dira. Ikasleengan ahozkoari buruz antzematen den irudikapenak ahozkoaren aurkako jarrera agerian uzten du eta, beraz, egilearen ustez, ahozkoaren didaktika nekez gauza daiteke egoera horretan. Ikasleengan, ahozkoak ez du aurkitu ez bere izena, ez bere

lekua, ez bere hizkuntza. Hala, ikasleek hizketarekiko dute jarrera nola hobetu eta landu proposatzen du egileak, sozio-didaktikaren bidetik.

Hona hemen ahozko hizkuntza edo hitz egitea aitzakia eta aztergai harturik osatu dugun lan-bilduma. Oinarrizko ikerketak, nolabait esateko hizkuntzalaritzaren eremukoak, eta aplikazioa –didaktika kasu honetan– begiz jotzen dutenak, bietarikoak bildu ditugu. Izan ere, euskararen irakaskuntza, asko aurreratu bada ere, oraindik oso urri agertzen zaigu ikerketaren aldetik, eta hutsune horren gainean egin nahi izan dugu gure ekarpena.

Leire Diaz de Gereñu, Ines Garcia Azkoaga eta Itziar Idiazabal
Leioan, 2006ko irailaren 29an

BAKTHINE, M.: *Esthétique de la création verbale,* Gallimard, Paris, (1984).

BELOKI, L., IDIAZABAL, I. & MANTEROLA, I.: "Bost urteko haur elebidunen euskarazko ipuin-kontaketak", *in* BAT, 56, (2005), 79-94.

IDIAZABAL I. & LARRINGAN L.M.: "Euskararen kalitatea aztertzeko marko teorikoa eta metodologia", *in* Ikastaria, 14, (2005), Eusko Ikaskuntza.

LUZZATI, D.: "Analyse périodique du discours", *in* Langue Française, 65, (1985), 62-73.

IDIAZABAL I. & LARRINGAN L.M. (2005a): "A propos de la structure périodique des énoncés oraux. Un outil pour la didactique des débats scolaires" *in* J.-F. Halte & M. Rispail (Arg.): *L'oral dans la classe. Compétences, enseignement, activités,* Paris, L¨Harmattan, 91-103.